

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA (BOS) FUNDAZIOAREN KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDEAK.

HITZAURREA

BOS, zuzenbide pribatuko erakundea izan arren, botere esleipen-emaile gisa dago kalifikatuta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileko 3.3 artikuluko baldintzak betetzen dituelako. Hain zuzen ere, aipatutako legeak izaera hori ematen dio interes orokorreko beharrianak asetzeko beren-beregi sortu den eta izaera juridiko propioa duen erakunde orori, baldin eta administrazio batek edo gehiagok, gehiengo, erakundearen jardura finantzatzen badute, kudeaketa kontrolatzen badute, edo bere administrazio organoko (kasu honetan, Patronatua) kideen erdia baino gehiago izendatzen badute.

Horren harira, SPKLTBren 191.b) artikulua dio Administrazio Publiko ez diren botere esleipendunen dagozkien organoek argibide batzuk, barruko esparruan halabeharrez bete beharrekoak, onartu beharko dituztela. Horietan, kontratazio-prozedurak arautuko dira; modu horretan, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun eta bazterkeria ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatuta geratuko da, eta, era berean, bermatuta geratuko da kontratua ekonomikoki eskaintzarik onena aurkezten duenari esleituko zaiola.

Horretarako, Juan Crisóstomo de Arriaga-Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) Fundazioaren Patronatuak kontrataziorako barne-jarraibide hauek onartu behar ditu; hain zuzen ere, jarraibideok aipatutako Patronatuak 2012ko otsailaren 28an onartutakoak ordeztzen ditu.

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua- Xedea eta helburua.

Kontrataziorako Barne Jarraibide hauen (aurrerantzean, jarraibideak) xedea BOSeK hirugarrenetik egiten dituen lan, zerbitzu eta horniduren kontrataziorako prozedurak arautzea da, honako kasuetan izan ezik:

- 1) SPKLTBko 4. artikuluan jasotako negozioak eta harreman juridikoak.
- 2) Erregulazio harmonizatuaren arabera kontratuak (SARA), hau da:
 - Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzarako kontratuak, edozein kasutan.
 - 5.186.000 €-ko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten lanen kontratuak.
 - Hornidura arloko kontratuak eta SPKLTBko II. eranskinean (1etik 16ra bitarteko kategoriak) jasotako zerbitzuetako kontratuak, baldin eta euren balio zenbatetsia 207.000 €-koa edo handiagoa bada.
 - Diruz lagundutako kontratuak, SPKLTBko 17. artikuluan araututakoak.
- 3) Sektoreko araudi aplikagarriak araututako edo berariaz salbuetsitako kontratu eta negozioak. Araudiak dioenaren arabera esleituko dira.

Publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatzea da Jarraibideon helburua.

Jarraibide hauek BOSek egindako kontratuen partetzat hartzen dira, eta beraien edukia Erakunde honen kontratatzaileen profilean egongo da eskuragarri.

1. eranskinean, kontratazioaren oinarritzko eskema erantsi da.

2. artikulua- Kontratuen izaera eta eskumeneko jurisdikzioa.

BOSek egiten dituen kontratuak pribatuak dira, SPKLTBko 20.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ordena jurisdikzional zibilak aldean artean sor daitezkeen liskarrak ebazteko eskumena izango du, kontratu pribatuen efektu, betearazpen eta iraungipenari dagokienez. Era berean, ordena jurisdikzionalak eskumena izango du Lege honen menpe dauden eta Herri Administrazio izaera ez duten erakunde eta entitateek sinatzen dituzten kontratu pribatuen prestaketari eta esleipenari eragiten dieten auzien berri izateko, baldin eta kontratu horiek erregulazio harmonizatuaren menpe ez badaude (SPKLTBko 21.2 artikulua).

3. artikulua- Arbitrajea.

BOSek egiten dituen kontratuen efektu, betearazpen eta iraungipenari buruz sor daitezkeen desberdintasunak konpontzeko, arbitrajera jo ahal izango da.

2. ATALA. KONTRATUAREN XEDEA

4. artikulua- Kontratuaren xedea.

1.- Kontratuaren xedea edozein dela ere, behar bezala zehaztuta egon beharko da.

2.- Ezin izango da kontraturik zatikatu, beraren zenbatekoa murrizteko asmoz eta, horrela, publizitateari edo esleipen prozedurei dagozkien betebeharrak saihesteko asmoz.

3.- Kontratuaren xedeak zatikapena onartzen duenean eta txostenean behar bezala justifikatzen denean, aldeetako bakoitza erloka banatuta egiteko aukera aurreikusi ahal izango da, baldin eta banaka erabili edo aprobetxatu badaitezke eta unitate funtzionala osatzen badute, edo xedearen izaerak hala eskatzen badu (SPKLTBko 86. artikulua).

5. artikulua- Hitzarmenaren askatasuna

BOSek behar beste hitzarmen, klausula eta baldintza sartu ahal izango ditu, baldin eta interes publikoaren, antolamendu juridikoaren eta administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez badira (SPKLTBko 25. artikulua).

6. artikulua.- Prezioa

- 1.- Prezioak jakina izan beharko du, edo berau zehazteko modua finkatu eta eurotan adierazi beharko da.
- 2.- Prezioa finkatzeko, prezio unitarioak edo oroharreko zenbatekoak erabiliko dira.
- 3.- Orrietan, prezioaren gaineko berrikuspen edo eguneratze klausulak finkatu ahal izango dira, modu librean, SPKLTBko 89tik 94ra bitarteko artikuluetan finkatutakoa kontuan hartu gabe.
- 4.- Prezioen bariazioari buruzko klausulak finkatu ahal izango dira, lortutako helburuen arabera.
- 5.- Betearazpen eza dela-eta, zigor-klausulak finkatu ahal izango dira.
- 6.- Kontratuen balio zenbatetsia SPKLTBko 88. artikuluan finkatutakoaren arabera zehaztuko da.
- 7.- Ordainketen erregimena orrian edo kontratuan zehaztuko da, aplikatu daitekeen arauan adierazitako mugen barruan, eta ezin izango da aplikatu SPKLTBko 216. artikulua.

7. artikulua- Kontratuaren iraupena eta luzapena

- 1.- BOSeK egiten dituen kontratuen iraupena zehazteko, kontuan izan beharko dira prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta, aldian-aldian, beraien betearazpena lehiapean jartzeko beharra.
- 2.- Kontratuak luzapen bat edo gehiago izan ditzake, baldin eta luzapenek irauten duten bitartean kontratuaren ezaugarriek beren horretan jarraitzen badute, eta esleipenerako lehia kontratuaren gehienezko iraupena kontuan izanik egin izan bada, luzapen-aldiak ere barne hartuta.
- 3.- Kontratazio organoak adostuko du luzapena, eta derrigorrezkoa izango da esleipendunarentzat, baldin eta kontratuak ez badu berariaz kontraktorik aurreikusten, eta, ondorioz, ez da aldean adostasunik emango (SPKLTBko 23. artikulua).

3. ATALA. KONTRATUAREN ALDEAK

8. artikulua- Kontratazio organoak.

- 1.- BOSen kontratazio organoak euren izenean kontratuak egiteko eskumena dutenak dira, estatutuen xedapenengatik edo jabekuntzako eskriturengatik; berariaz aipatzen ez bada, Patronatuak izango du horretarako eskumena.
- 2.- Kontratazio organoak kontratua interpretatzeko, betearazpenetik sor daitezkeen zalantzak ebazteko, kontratua eta bere efektuak aldatzeko zein eteteko, eta esleipen-prozedura hutsik uzteko eskumena dauka, bai eta, indarrean dagoen legearekin bat etorriz, beste edozein eskumen erabiltzeko gaitasuna ere, baldin eta eskumen horiek ez badira interes publikoaren, antolamendu juridikoaren eta administrazio onaren printzipioaren aurkakoak, SPKLTBko 25. artikulua dion moduan.
- 3.- Edonola ere, botereen esleipenaren edo ordezkatzearen ondorioz –Jarraibide hauen onespenearekin gauzatzat hartuko direnak–, BOSen kontratazio-organoa Patronatuaren presidentea izango da, eta Kudeatzailletza edo Zuzendaritza Nagusia, I. eranskinean jasotako kontratuen zenbatekoaren arabera banaketaren arabera.

9. artikulua- Kontratazio Batzordea

1.- Administrazio Kontseiluak Kontratazio Batzorde bat izendatuko du bere baitan, eta honako hauek osatuko dute: erakundearen presidentek edo hark ordezkaritza emandako kideak, BOSen kudeatzaileak edo zuzendariak, BOSen arduradun tekniko batek eta idazkari batek.

2.- Kontratazio Batzordeak honako funtzio hauek beteko ditu:

- Presidenteari 300.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten pleguen eta lan-esleipenen proposamena egitea, eta 100.000 eurotik gorakoa, gainerako kontratuetan.
- Derrigorrean jakinaren gainean egotea 50.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratazioen inguruan, eta 18.000 eurotik gorakoen inguruan, gainerakoetan.
- Berariazko kontratazio-prozedurak baimentzea, kontratuaren ezaugarrien arabera.
- Batzordearen funtzionamendua arautzea.
- Argibide hauetan adierazitako beste batzuk.

10. artikulua- Kontratuaren arduraduna.

SPKLTBko 52. artikulua arabera, kontratazio organoek kontratuaren arduraduna izendatu ahal izango dute, eta bere esku egongo da betearazpena gainbegiratzea eta beharrezko jarraibideak erabaki eta ematea, adostutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko asmoz.

11. artikulua- Kontratataren gaitasuna.

1.- Baldintza orriek zehaztuko dituzte BOSekin kontratuak egiteko dauden debekuak. Edozelan ere, SPKLTBko 60.1 artikuluan zehaztutako egoeraren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak ezin izango dira kontratistak izan.

2.- Orri horietan, gaitasunerako eta kaudimenerako baldintzak zehaztuko dira, bai eta berauek justifikatzeko moduak ere. Kontratazioaren zenbatekoa dela-eta, ez dagoenean zertan Baldintza Orririk egin, hau da, 50.000 € baino gutxiagoko kontratazioetan, eskaintzen eskaeran egokitzen jotzen diren baldintzak eskatu ahal izango dira, kontratuaren xedearekin bat etorritik.

3.- Ekiteko gaitasuna eta kaudimen teknikoa, profesionala, ekonomikoa eta finantzarioa BOSek orrietan ezarritako bitartekoen arabera egiaztatuko dira.

4. ATALA. KONTRATUAREN LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA

12. artikulua- Lizitazio eta esleipen prozedura.

1.- BOSek prozedura ireki, mugatu edo negoziatua erabili ahal izango ditu (azken hori, publizitatearekin edo gabe).

2.- Elkarrizketa lehiakorra eta proiektuen lehiaketa SPKLTBn ezarritako eran erabili ahal izango dira administrazio kontratuen kasuan, eta BOSen izaera juridikoaren ezaugarrietara egokituko dira.

3.- Gainera, TRLCSPn ezarritako edozein kontratazio-teknika erabili ahal izango da; besteak beste, hitzarmen markoa, eskuraketa sistema dinamikoa eta enkante elektronikoa.

4.- Prozedura irekian, interesa duten enpresaburu guztiek proposamen bat aurkeztu ahal izango dute. Mugatuan, BOSek aukeratutako enpresaburuek baino ezin izango dituzte proposamenak aurkeztu, eskaintzen eskaera bidez. Prozedura negoziatuan, kontratua BOSek aukeratutako enpresaburuari esleituko zaio, jasotako eskaintzen artetik edo eskaintzak aldeztu aurretik eskatuta; gutxienez, gaitasuna duten hiru enpresarekin egingo da hori, posible bada.

5.- Jarraibideotan ezarritako zenbatekoen kasuan, BEZari dagokion zenbatekoa ez da bertan sartutzat hartuko.

6.- Kontrataziorako prozedura orokorrak honakoak izango dira, zenbatekoaren tartearen arabera:

A) 50.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duen edozein kontratu.

50.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten lanetan, edo 18.000 eurotik beherako gainerako kasuetan, kontratuak zuzenean jarduteko gaitasuna duen eta zerbitzua egiteko prestaketa profesionala duen edozein enpresabururi esleitzen diren kontratuak, TRLCSPko 111. artikuluan ezarritako arauak beteta, betiere.

Lanetakoak ez diren 18.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen kasuan, gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira, eta hori posible ez balitz edo ez balitz komenigarria izango, idatziz jasoko da.

B) 300.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten lanetan, edo 100.000 eurotik beherakoak, gainerako kasuetan.

Prozedura negoziatu bidez esleituko dira, gutxieneko eskaintzak aurkezteko aldeztu aurretiko eta berariazko gonbidapenarekin. posible bada, kontratuaren xedearekin erlazioan egiteko jarduerarekin aritzen diren eta gaitasuna duten hiru enpresarekin egingo da hori.

Aldeztu aurretik, baldintzen orria egin beharko da. Bertan, gutxienez, kontratuaren oinarriko ezaugarriak egongo dira jasota, eta, hala beharko balitz, aldagaien onarpenaren erregimena, eskaintzak jasotzeko modalitateak, esleipenerako irizpideak, bermeak, preskripzio teknikoak, gaitasun eta kaudimeneko baldintzak, epeak eta zigorrak ere jasoko dira. BOSek kontratuaren edozein arlo negoziatu ahal izango du lizitatuzaileekin, dagokion orrian ezarritakoarekin bat etorritik. Gainera, kontratu horiei buruzko informazioa kontratuak formalizatu aurretik argitaratuko da BOSen kontratatzailearen profilean, deskribapen labur batekin eta esleipen metodoa zehaztuz.

C) 3. mailako kontratuak.

Lehen aipatutako 2. mailako kontratuek baino balio zenbatetsi handiagoa duten kontratuetarako, baldin eta ez badaude erregulazio harmonizatuaren menpe.

Prozedura irekiz, mugatuz edo negoziatuz esleituko dira; azken prozedura mota hori Legeak baimendutako kasuetan egingo da, aldez aurretik onartutako administrazio klausulen eta agindu teknikoen orrien arabera. Kontratu horiei buruzko informazioa BOSen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, deskribapen labur batekin eta esleipen metodoa zehaztuz.

13. artikulua.- Publizitatea

TRLCSPko 191 c) artikuluan ezarritakoaren arabera, BOSen kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera, 50.000 €-tik gorako zenbatekoa duten kontratuen lizitazioari buruzko informazioaren iragarpen-printzipioarekiko betebeharrak betetzat joko dira. Eta hori, egokitzat jotzen diren beste bitarteko batzuk erabiltzeari kalte egin gabe, eta, TRLCSPko 169. eta 175. artikuluen artean dauden artikuluei jarraituz, iragarpena salbuesten duten kasuak albo batera utzita.

14. artikulua- Lizitatzailerik aurkeztu behar duten dokumentazioa.

Orrietan, lizitatzailerik bakoitzak eman beharreko dokumentazioa zehaztuko da.

15. artikulua- Proposamenen aurkezpena.

1.- Interesdunen proposamenak orrietan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta, proposamenak aurkeztuz gero, enpresaburuak baldintzarik gabe onartuko ditu klausula edo baldintza guztiak, salbuespenik edo erreserbarik gabe. Lizitatzailerik bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

2.- Kontratazio organoak finkatuko ditu eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak jasotzeko epeak, lizitazioarako iragarkian eta orrietan.

3.- Lizitazioaren iragarkian eta kontratuaren orrietan adieraziko da lizitatzailerik aldaketak edo hobekuntzak eskaintzeko aukerarik ote duten. Era berean, aurkezpena zer elementurekin eta zer baldintzatan egin dezaketen ere zehaztuko da bertan.

16. artikulua- Behin-behineko eta behin betiko bermeak.

BOSek behin-behineko edo behin betiko bermeak eskatu ahal izango ditu, orrian zehaztutakoaren arabera.

17. artikulua- Eskaintzak baloratzeko irizpideak.

1.- Kontratazio organoak zehaztuko ditu kontratuaren esleipenerako oinarri gisa erabili behar diren irizpideak, eta orrietan adieraziko dira. Era berean, orriek organo bakoitzari dagokion haztapen erlatiboa zehaztu beharko dute.

2.- BOSentzat ekonomikoki onena den eskaintza aurkezten duenari esleituko zaizkio kontratuak, orrietan zehaztutako irizpideak kontuan izanik.

18. artikulua- Esleipenaren iragarpena.

1.- Kontratuen esleipenaren berri orrietan zehaztutako bitartekoen bidez emango zaie hautagai edo lizitatzailerei, horrelakorik balego.

2.- Kontratatzailearen profilean 50.000 €-tik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen esleipenari dagokion informazioa jasoko da.

19. artikulua- Kontratuaren formalizazioa.

1.- Oro har, lanen kasuan, nahitaezkoa izango da 50.000 €-tik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak egitea, eta, gainerako kasuetan, 18.000 €-tik gorakoa.

2.- Kontratua ezin izango da hitzez egin, premiazko kasuetan izan ezik (TRLCSPko 28. artikulua). Idatziz egingo da, 15 egun naturalen barruan, behin betiko esleipenaren jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita.

20. artikulua.- Gardentasuna

Lizitazioaren iragarpenak esleitu beharreko kontratuaren eta esleipen motaren funtsezko xehetasunen deskribapen laburra izango du, esleipena egiten duen organoarekin harremanetan jartzeko gonbidapenarekin batera. Hala beharko balitz, kontratatzailearen profileko informazio gehigarria sartu ahal izango da, edo esleipena egiten duen organoari aldeztu aurretik eskatu ahal izango zaio.

21. artikulua- Konfidentziasuna.

1.- BOSek ezin izango du enpresaburuek emandako informaziorik zabaldu, baldin eta enpresaburuek konfidentziaz jotzen badute informazio hori. Horrek, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten die, bai eta eskaintzen arlo konfidentzialei ere.

2.- Orrietan edo kontratuan konfidentziaz jotzen den edo, duen izaeragatik, horrela tratatu behar den informazioaren isilpekotasuna errespetatu beharko du kontratistak, kontratua betearaztean. Betebehar hori bost urtez mantenduko da, informazioaren berri izaten den unetik zenbatzen hasita, orriek edo kontratuak ez badute epe luzeagorik zehazten (TRLCSPko 140. artikulua).

22. artikulua- Berdintasuna eta bazterkeria eza.

BOSen deialdi, lizitazio eta kontratuak baldintza berberetan eskainiko zaizkie interesdun guztiei (TRLCSPko 139. artikulua).

23. artikulua.- Indarrean sartzea

Argibide hauek Patronatuak 2014/03/31n onartu ostean sartuko dira indarrean, onarpenetik aurrera hasten diren kontratazio irizpideetarako.

I. ERANSKINA
KONTRATAZIOAREN OINARRIZKO ESKEMA

Mota	Zenbatekoa	Prozedura	Baldintza orriak	Eskaintza k eskatzea	Lizitazioaren iragarpena	Esleipenaren iragarpena	Kontratuaren formalizazioa	Batzordearen proposamena	Organoa
SARA EZ	Lanak < 50.000 Gainerakoak < 18.000	Zuzeneko esleipena	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	Zuzendaritza Nagusia
	Gainerakoak, 18-50.000 artean	Zuzeneko esleipena	EZ	BAI	EZ	EZ	BAI	EZ	Zuzendaritza Nagusia
	50-300.000 arteko lanak Gainerakoak, 50-100.000 artean	Negoziatua	BAI	BAI	EZ	BAI (Kontratatzailearen profila)	BAI	EZ	Zuzendaritza Nagusia
	300.000-5.186.000 arteko lanak Gainerakoa, 100.000-207.000 artean	Irekia edo mugatua (SPKLren arabera negoziatua)	BAI	Ez aplikagarria	BAI (Kontratatzailearen profila)	BAI (Kontratatzailearen profila)	BAI	BAI	Patronatuko presidentea

SARA	Lanak > 5.186.000 Gainerakoak > 207.000	Irekia edo mugatua (SPKLren arabera negoziatua)	BAI	Ez aplikagarria	BAI (EBAO eta Kontratatzailearen profila)	BAI (EBAO eta Kontratatzailearen profila)	BAI	BAI	Patronatuko presidentea
-------------	--------------------------------------------	----------------------------------------------------	-----	-----------------	----------------------------------------------	----------------------------------------------	-----	-----	-------------------------